

Ataria

Ongi etorri *Historiaurrea Euskal Herrian* ikasmaterialera!

Euskal Historiaurrearen aldi nagusiei dagozkien ondoz ondoko zortzi moduluen bitartez (Behe, Erdi eta Goi Paleolitoa, Epipaleolitoa, Neolitoa, Kalkolitoa, Brontze Aroa eta Burdin Aroa), Historiaurre horretaz gaur egun dugun ezagueraren egoera aurkezten da hemen. Horrenbestez, atal bakoitzean, Euskal Herriaren Historiaurrean sakontzen lagunduko diguten elementu nagusiak modu orokorrean azaltzeari ekingo zaio, bilakaera sozial, ekonomiko, kultural, material, sinboliko eta antropofisikoaren ikuspegietatik.

Ondoren, gure antzina-antzinako iragana ikasteko modu atsegina aurkezten dizugu hemen.

Behe Paleolitoa



KRONOLOGIA: 350.000/100.000 B.P.

GIZAKIA: Behe Paleolitoan neanderthal-aurreko gizakiak bizi izan ziren gure inguruan. Denboran zehar, aldakuntza historiografikoak zirela medio, izen oso ezberdinak jaso dituzte gizakiek: Homo erectus, H. anteneanderthalensis, H. ergaster, H. heidelbergensis eta H. antecessor. Azken hau, Atapuercako Hezurren Leizean agertutako gizakiarentzako proposatu den deitura da. Gurekin alderatuta ez zen oso desberdina, agian altuagoa eta indar handiagokoa. Lezetxikiko besahezur ospetsua garai honetakoa izan daiteke, eta antz oso handia du Atapuercako Hezurren Leizean agertzen den batekin (hangoa 325.000-340.000 urte bitartekoa izan daiteke).

JANZKERA: Oinarrizko lehengaia larrua zen (harrapatutako animaliena), baina landare-zuntzak ere (belarrak, lastoak, zuhaitz-azala, hostoak) erabiltzen zituzten. Jantziak josi gabekoak ziren, eta botoirik ere ez zegoen oraindik; ondorioz, zati ezberdinak korapiloen bidez elkartzen zituzten. Ez dago oinetakoen aztarnarik, agian erabili ere ez zituztelako egingo.

ASENTAMENDUAK: Orokorrean, atari zabalean eraikitako behin-behineko kanpalekuak izaten ziren. Asentamendu hauek erreketatik gertu egoten ziren, batzuetan bertako terrazen gainean. Etxola apalek osatzen zuten kanpalekua: egitura, adarrez eraikitzen zen, eta gainean larruzko estaldura ipini. Erdiko suaren inguruan ez zen hiruzpalau etxola baino gehiago egoten, taldeek batez beste 5-7 lagun izaten zituztelako oraindik. Kobazulo batzuk erabiltzen ziren, baina Euskal Herrian Lezetxikiko adibidea ezagutzen dugu bakarrik (eta berori zalantzarekin).

KLIMATOLOGIA: Epe zabal honetan, denetariko egoera klimatikoak bizi izan ziren, hotzak eta epelak (batzuk, gaur egun baino epelagoak). Ezagutzen ditugun aztarnategiak atari zabalekoak izateak zerikusi zuzena izango du, seguruenik, aztarnategien kontserbazioarekin, eta ez du esan nahi garai hotzetan ez zegoenik kobazuloen okupaziorik.

FAUNA ETA LANDAREDIA: Garai hotzetan, mamuta, iledun errinozeroa, elurretako erbia, jatuna eta antzeko animaliak bizi izan ziren gure inguruan. Zuhaitzak berriz urriak ziren, eta gehienak koniferoak (pinua eta izeia). Paisaian tundra zen nagusi, edo estepa hotza, belar altu eta horiez jantzia.

Garai epeletan egun ezagutzen ditugun jatorrizko animali eta landare-espezieak bi ziren. Landare-paisaian baso hostogalkorraren hedapena azpimarratu behar da (hurritza, haritza, artea, urkia, haltza –ibaien ertzetan-), horri dagozkion belardien paisaiarekin batera. Animalien artean, oreina, orkatza, zaldia, basurdea edo felido gehienak (hiena, katamotza, basakatua, etab.) klima epelaren erakusgarri dira.

EKONOMIA: Landare-produktuen hornikuntzak (fruituak, sustraiak, azala, hostoak) lehentasuna zuen oraindik talde hauen artean. Horien elikaduraren zati nagusia landare-elikagaiek osatzen zuten, hortzetan utzitako zantzueta ikus daitekeenaren arabera. Jaten zuten okela, ehizatutako animalia txikietatik zetorren (erbiak, untxiak, kaskarinak eta agian arrain edo txori batzuk). Haratusteljaleak ziren eta, dakigunaren arabera, ez ziren oso ehiztari trebeak.

GARAPEN TEKNIKOAK: Gizakia Euskal Herrian ikusten dugunetik, suaren teknika menperatuta dauka. Seguruenik, suharri eta piritak (edo beste burdinazko mineral batzuk) elkar jotzean sortutako txinpartaz baliatu zen gizakia sua egin ahal izateko. Bestalde, tresna gehienak (lantzak, porrak) zurezkoak dira garai honetan. Adar bat hartu, harrizko printza batekin zorroztu eta muturra su gainean jarrita gogortzen zuten. Hezur batzuk ere zorroztu zitzaizkion, Euskal Herrian halakorik ezagutzen ez dugun arren. Harrizko tresneria ere oso arkaikoa da, lanabes oso handiak eta oso ukitu gutxirekin egiten baitzituzten, eta batez ere aurpegi bikoak eta harrakalagailuak gertatzen zituzten. Denetariko harrizko lehengaiak (suharria, hareharria, kuartzoa edo kuartzita, arbela, kareharria, etab.) erabiltzen zituzten, baina gehienbat, gertuen zegoen harri-mota hartzen zuten.

PORTAERA SINBOLIKOAK: Ez dugu inondik ere ezagutzen garai honetarako portaera sinbolikorik, baina baliteke etorkizunean Burgoseko Atapuerca aztarnategian bildutakoak informazio ugari eskaintzea. Bide honetan, gogoratu behar da Hezurren Leizean agertzen den giza gorpuen metaketa askotan ehorzketa-errituekin lotu izan dela, oso gai konplexua izan arren.

AZTARNATEGI GARRANTZITSUENAK:



Lezetxiki (Arrasate): Kobazuloan dagoen aztarnategi hau oso garrantzitsua da, batez ere bertan aurkitu zirelako (VIII. mailan) Euskal Herrian ezagutzen ditugun giza hezurrik zaharrenak. J.M. Barandiaranek (1956-1968) eta A. Arrizabalagak (1996->) indusi zuten.

Irikaitz (Zestoa): Atari zabaleko kanpalekua da, estratigrafiaduna, eta ezaugarri horretatik datorkio bere garrantziaren zatirik handiena. A. Arrizabalagaren zuzendaritzapean indusi zen (1998 ->).

Urrunaga (Legutio): Urrunagako urtegia inguratzen duten terrazetan harrizko tresnak berreskuratzen ari dira, seguruenik Azken Acheul aldikoak direnak. A. Saenz de Buruaga, J. Fernandez Eraso eta T. Urigoitiak eman dute aztarna hauen berri idatziz.

Iruñealdea: Arga ibaiaren terrazetan, Nafarroako hiriburuaren inguruetan, hainbat harrizko tresna jaso eta ezagutzera eman zituen J. Garcia Gazolazek 1991tik aurrera. Kronologikoki, seguruenik Erdi Acheul aldiaren kokatu behar ditugu aztarna hauek.

Erdi Paleolitoa



GIZAKIA



JANZKERA



ASENTAMENDUAK



KLIMATOLOGIA



FAUNA ETA
LANDAREDIA



EKONOMIA



GARAPEN
TEKNIKOA



PORTAERA
SINBOLIKOA

KRONOLOGIA: 100.000/35.000 B.P.

GIZAKIA: Homo sapiens neanderthalensis edo Neanderthal gizakia izan zen garai honetan nagusi. Oraindik ez dago erabat garbi nondik eboluzionatu zuen gizaki-mota honek, eta zergatik ordezkatu zuen gure tankerako gizakiak Erdi eta Goi Paleolitoen arteko igaroaldian.

JANZKERA: Landare-zuntzak (belarrak, lastoak, azala, hostoak) ahaztu gabe, larrua zen janzeran oinarritzko lehengaia, josi barik eta botoirik gabe, korapilo bidez lotua. Oinetakoei buruz ezer gutxi esan daiteke; agian artean ez zituzten erabiltzen. Aurreko aldiarekin alderatuta, tendoiak edo animalien ileak gehiago erabiltzen ziren, ehiza areagotu eta gizakiaren portaera konplexuago bihurtu zelako.

ASENTAMENDUAK: Talde hauen asentamenduak, atari zabalean, erreketatik gertu eta, batzuetan, bertako terrazen gainean eraikitako behin-behineko kanpalekuak ziren gehienbat. Beste askotan, harpe edo haitzuloetan egokitzen ziren aterpe soilak, adarrez eginiko egitura larraz estalita. Ez dago pentsatzerik hiruzpalau etxola baino gehiago egongo zenik kanpaleku bakoitzean, eta erdi-erdian sua izaten zuten. Taldeak, aurreko aldiaren baino pixka bat handiagoak izan zitezkeen, normalean 8/10 gizabanako bitartekoak.

KLIMATOLOGIA: Epe zabal honetan, denetariko egoera klimatikoak izan ziren, hotzak eta epelak (batzuk egungoak baino are epelagoak).

FAUNA ETA LANDAREDIA: Egoera epela baldin bazen, animalien artean zerbidoak, basurdeak eta uroak topa zitezkeen besteak beste. Basoak, berriz, zuhaitz hostogalkorrek osatzen zituzten –hurritza, haritza, gaztainondoa, etab.– eta paisaia belardi berde altuek osatu. Garai hotzetan, Behe Paleolitoan deskribatutakoaren oso antzekoa zen egoera. Mamuta edo elurretako erbia bizi ziren gure inguruan besteak beste. Zuhaitzak urriak ziren, gehienak koniferoak, eta paisaia gaur egun ezagutzen dugun tundra edo estepa hotzak osatzen zuen.

EKONOMIA: Harrapariak ziren gizakiak, baina oportunistak edo espezializatu gabeak. Eskura zutena ehizatzen eta biltzen zuten (agian haratustela edo sarraskia ere bai, behar izanez gero). Zaldia, oreina, basahuntza, bisontea eta uroa ziren gehien ehizatutako animaliak. Ustiakuntza-sistema ez zegoen batere

orekatua, eta ondorioz, seguruenik nahikoa gosea pasatzen zuten batez ere neguko hilabeteetan.

GARAPEN TEKNIKOAK: Oraindik teknologia harrizko tresnerian zentratuta zegoen soilik (punta, karraskagailu eta hortzak dira ugarien agertzen diren tresnak). Teknika berria garatu zen harria lantzeko, hain zuzen, Levallois izenekoa, aurrez pentsatutako erako printzak egiteko. Hezurrezko tresnak asmatu gabe zeuden oraindik. Zurezkoak, ostera, hasita zeuden erabiltzen.

PORTAERA SINBOLIKOAK: Euskal Herrian ez bada ere, Neanderthalen ehorzketa batzuk ezagutzen ditugu jada, nahiz eta lehenengo erritu batzuk baino ez izan. Oraindik ez dago benetako arterik.

AZTARNATEGI GARRANTZITSUENAK:



Arrillor (Murua): 1989 eta 1995 bitartean A. Saenz de Buruagak indusitako kobazuloa. Oso estratigrafia sendoa dauka (sei metro eta 21 maila, gehienak aztarna arkeologikoekin).

Axlor (Dima): Ez dago Arrillor-etik oso urruti, haitzulo biak Gorbeia mendiaren magaletan kokatzen baitira. Lehenengo indusketa J.M. Barandiaranena izan zen (1969-1974), eta azken urteotan (2000tik aurrera) J.E. Gonzalez eta J.J. Ibañezek zuzentzen dute bertako premiazko indusketa. Nahiko leku aberatsa da.

Olha (Kanbo): Olhako indusketa-ekinaldiak E. Passemardek zuzendu zituen 20ko hamarkadan. Olha ez da benetako kobazuloa, harpe luzea baizik.

Amalda (Zestoa): 1979 eta 1984 bitartean J. Altunaren zuzendaritzapean industria. Haitzulo honetako maila arkeologiko batean, VII.ean hain zuzen, Mustier aldiko asentamendu garrantzitsua topatu zen.

Goi Paleolitoa



KRONOLOGIA: Gutxi gora behera 35.000/10.000 B.P.

GIZAKIA: Une honetatik aurrera gure moduko gizakia aurki dezakegu, *Homo sapiens sapiens* edo Cro-Magnon delakoa alegia (gu ere Cro-Magnon gizakiak gara).

JANZKERA: Denetariko landare-zuntzak (belarrak, lastoak, azala, hostoak) erabiltzen zituzten. Dena den, oinarrizko lehengaia larrua litzateke oraindik, josita (jostorratza Solutre aldian asmatu zen) eta botoi oso sinpleekin, nahi izanez gero. Oinetakoei buruz ezer gutxi esan daiteke, baina seguruenik abarketen itxurako zerbait erabiliko zuten.

ASENTAMENDUAK: Atari zabalean edo harpeetan (gutxiago) kokatzen ziren, eta batez ere, kobazulo nahiko itxiak aukeratzen zituzten: atarian lana egiten zuten, barrurago lo, eta labar-artearen adierazpenetarako are barrurago sartzen ziren. Taldeak 15-20 lagun inguruk osatzen zituzten.

KLIMATOLOGIA: Epe honetan, Pleistozenoko garai klimatiko hotzenak bizi izan ziren. Itsasoa, egun baino 120 metro baxuago egotera iritsi zen, polo eta glaziarretan metatzen zelako lurrian dagoen uraren zati handi bat.

FAUNA ETA LANDAREDIA: Fauna eta landaredia Behe eta Erdi Paleolitoan deskribatutakoaren oso antzekoak ziren. Hortaz, garai hotzetan mamuta, iledun errinozeroa, elurretako erbia, jatuna eta antzekoak topa genitzakeen animalien artean, eta batez ere koniferoak zuhaitzen artean. Garai epeletan, berriz, egun ezagutzen ditugun animalia eta landare-espezieak zeuden: baso hostogalkorren hedapena azpimarratu behar da. Animalien artean, oreina, orkatza, zaldia, basurdea eta felido gehienak ziren nagusi.

EKONOMIA: Harrapariak ziren, baina espezializatuak eta sistema orekatuan. Urtez urte, urtaroz urtaro eta, seguruenik, hilabetez hilabete, bilketa, arrantza eta ehiza planifikatuak praktikatzen zituzten. Ez zuten goserik pasatzen. Txakurra etxekotu zen, ehizan laguntzaile gisa erabiltzeko.

GARAPEN TEKNIKOA: Oso handia, bai harrizko, bai hezurrezko, bai bestelako tresnerian. Harrizko tresneriaren barruan, anizte-prozesua eman zen, eta tresnak gero eta txikiagoak eta luzeagoak ziren (prozesu honi, Leptolitizazioa esaten zaio). Gehien hedatu ziren harrizko tresnen artean, zizela, karraskagailua, zulagailua eta bizkar zanpatudun xafla edo punta dugu.

Hezurrezko tresneriaren barruan, osterak, hagaxkak, azagaiak, jostorrazak (Solutre alditik aurrera) edo arrankaziak (Madeleine aldia) hartu behar dira kontutan. Zintzilikariak, botoiak, etab. egiten zituzten.

PORTAERA SINBOLIKOAK: Bai hilobiratzeak, bai labar-arteak eta bai arte higikorrek proiektio handia izan zuten. Musikaren zantzuak ditugu (txirulak Isturitzen), eta dantza ere egon zitekeen.

AZTARNATEGI GARRANTZITSUENAK:



Isturitz (Donamartiri, Nafarroa Beherea): Zalantzarik gabe, Euskal Herrian dagoen aztarnategi arkeologiko garrantzitsuena dugu. Txanda eta ikertzaile desberdinek industria, batez ere XX. mendearen lehen erdian. Denetarikoa dauden arren, bereziki garrantzitsuak dira Gravette eta Madeleine aldiko mailak.

Gatzarria (Zühara, Zuberoa): G. Laplacek 50eko hamarkadan indusi zuen, batez ere lehen Goi Paleolitoko maila oso aberatsa duen aztarnategi hau (Castelperron, Protoaurignac, Aurignac eta Gravette aldiak).

Koskobilu (Olazti, Nafarroa): 40ko hamarkadan eta Olaztiko harrobiaren eraginez suntsituriko aztarnategia, berreskuratutako materialen arabera bereziki interesgarria dena.

Bolinkoba (Abadiño, Bizkaia): Aranzadi eta Barandiaranen zuzendaritzapean 30eko urteetan indusitako haitzuloa. Gravette, Solutre eta Madeleine aldiko maila oso aberatsak izateagatik du batez ere garrantzia.

Labeko Koba (Arrasate, Gipuzkoa): 1987 eta 1989 bitartean A. Arrizabalagaren zuzendaritzapean berreskuratutako aztarnategia, Arrasateko saihebidetaren lanen ondorioz kobazuloa txikitu aurretik. Maila aipagarrienak lehen Goi Paleolitokoak dira, Protoaurignac eta Aurignac aldikoak batez ere.

Ekain (Deba, Gipuzkoa): Santimamiñen bezala, labar-artearen adierazpen garrantzitsuak topatu dira Ekainen, Madeleine aldikoak hauek ere. Haitzuloaren atakan zegoen aztarnategia 1968 eta 1974 bitartean Altuna eta Barandiaranek zuzendutako ikertaldeak arakatu zuen.

Urtiaga (Deba, Gipuzkoa): Beste indusketa klasikoetako bat dugu hau. 1936an Aranzadik eta Barandiaranek bertan behera utzi behar izan zituzten bertako landanak, eta ez zuten berriro inoiz ere elkarrekin topo egin. Barandiaran 1953an itzuli zen, Iparraldetik bueltan zetorrela. Beste batzuen artean, Madeleine aldiko geruzak dira aipagarrienak.

Aitzbitarte (Errenteria, Gipuzkoa): Errenteriako Landarbason dagoen Aitzbitarte muinoan bost kobazulo daude, tartean III.a eta IV.a eduki arkeologikodunak. Aitzbitarte IVko indusketa gehienak kontrolik gabe garatu ziren ia 1960ra arte, alegia Barandiaranek lehenengo ikerkuntza zientifikoa burutu aurretik. Bestalde, 1986tik Gravette eta Solutre aldiko maila oso aberatsak dituen Aitzbitarte III izeneko haitzuloa industen ari dira Altunaren zuzendaritzapean.

Epipaleolitoa



KRONOLOGIA: 10.500/ 6.000 B.P.

GIZAKIA: Gure modukoa, Homo sapiens sapiens edo Cro-Magnon gizakia.

JANZKERA: Denetariko landare-zuntzak (belarrak, lastoak, azala, hostoak). Oinarrizko lehengaia larrua litzateke oraindik, josita eta botoiekin. Oinetakoei buruz ezer gutxi esan daiteke, baina seguruenik abarketen itxurako zerbait erabiliko zuten. Landare-baliabideak ugaltu ziren janzkeran, hobekuntza klimatikoa zela medio, eta horri dagokion basoaren hedapenaren ondorioz.

ASENTAMENDUAK: Hobekuntza klimatikoa zela bide, pixkanaka-pixkanaka kobazuloak baztertu egin ziren bizigune gisa. Epipaleolitoak aurrera egin ahala (Azil aldia, Epipaleolito laminarra, Epipaleolito geometrikoa) argiago ikusten da hori. Epipaleolito geometrikoan jada, aztarnategi tipikoenak atari zabaleko kanpalekuan eta harpeetan zeuden. Hobekuntza klimatikoaren ondorioz, halaber, Euskal Herriko lurralde guztietan bizitzeko aukera zegoen Epipaleolitoa bukatzerakoan, altuerak ez baitzuen inolako eragozpenik sortzen.

KLIMATOLOGIA: Epipaleolitoarekin Pleistozenoa bukatu zen eta Holozenoa hasi. Klima zeharo epeldu zen; hasieran hezetasun handiagoa zegoen, baina hurrengo alditik aurrera, egungo egoerara hurbildu zen gero eta gehiago.

FAUNA ETA LANDAREDIA: Landaredian, arbola hostogalkorrek (hurritza eta haritza) kolonizatu zituzten Goi Paleolitoko aldi hotzetan argitutako baso-azalera handiak. Animalien artean basurdea, orkatza, basakatu eta katamotza dira epelaldiaren erakusle, eta aldi berean, Pleistozenoaren fauna hotza (elur-oreina, errinozeroa, mamuta, etab.) desagertu egin ziren guztiz.

EKONOMIA: Egokitzapen-garaia zen, ungalatu handi askok epeltzearekin desagertu edo lekualdatu egin behar zutelako. Aurreko sistematizazioari eutsi zitzaion, baina landare eta animalia espezie berrietara egokituta. Itsaski-bilketa, arrantza eta landare-produktuen bilketa ugaltu ziren, aniztasun handiagoa sortuz elikagai-iturrietan. Behar izanez gero, landare eta onddoetatik botikak ateratzen zituzten, ohiko medikuntzak erakusten duen modura.

GARAPEN TEKNIKOA: Beherakada nabaritu zen hezurrezko tresnerian; harrizkoa, bestalde, egokitu egin zen leptolitizazio-prozesuan (ijezte eta txikitze-prozesua). Geometriko txikiekin, tresna konposatuak ugaritu ziren garai honetan. Garrantzi berezia hartu zuten hortzek. Europako Epipaleolitoko

egurrezko tresna ugari ezagutzen dira, leku askotan kontserbatu direlako. Tartean, amuak, arrankaziak, hagaxkak, etab. aurkitu dira.

PORTAERA SINBOLIKOAK: Labar-arteak desagertu zen, eta arte higikorra, ia-ia. Hobiratzeetan, berriz, aurrerakada handia gertatu zen; Euskal Herriko lehenengoak une honetakoak dira (banakakoak izaten ziren). Honen ondorioz, beste munduarekiko sinesmen erlijiosoa sumatzen da jada.

AZTARNATEGI GARRANTZITSUENAK:



Antton Koba (Oñati, Gipuzkoa): A. Armendarizen zuzendaritzapean indusitako kobazulo honetan, Historiaurre berantiarreko geruza-sorta luzea dago (tartean Azil aldiko maila aberats bat ere bai).

Santimamiñe (Kortezubi, Bizkaia): Hainbat urtetan, Hego Euskal Herrian indusitako aztarnategi garrantzitsuena izan da, eta oraindik orain balio sinboliko berezia dauka. Indusketa-ekinaldi trinkoenak Aranzadi, Barandiaran eta Egurenak osatutako hirukoteak zuzendu zuen 1918 eta 1926 bitartean. Euskal Herriko Epipaleolitoan aipatu izaten dira bertako IV. eta V. mailak (Azil aldikoa eta Mesolitikoa).

Fuente Hoz (Anuzita, Araba): Euskal Herriko aztarnategi garrantzitsuenetarikoa dugu Fuente Hoz. Bertan, 1981 eta 1986 bitartean egin ziren indusketak A. Baldeonen zuzendaritzapean. Epipaleolito eta Neolito bitarteko sekuentzia luzea erakusten du.

Zatoia (Abaurregaina, Nafarroa): I. Barandiaranek burutu zituen aztarnategi honetako indusketa-ekinaldiak, zeinetan garrantzi berezia duen Pirinio inguruan kokatuta goteak. Antzintasun handiko Azil aldia topatu zen bertan.

Neolitoa



KRONOLOGIA: 6.000/4.500 B.P.

GIZAKIA: Gure modukoa, Homo sapiens sapiens edo Cro-Magnon gizakia.

JANZKERA: Denetariko landare-zuntzak (belarrak, lastoak, azala, hostoak), eta tartean lehenengo ehunak (lihozkoak). Larruak lehenetsua galdu zuen, baina oraindik ez zen artilea erabiltzen. Josita eta botoiekin izaten ziren. Oinetako gisa, landare zuntzez eginiko abarketen itxurako zerbait erabiltzen zuten (Kordoban eta Malagan aurkitu dira).

ASENTAMENDUAK: Garai honetatik aurrera, gero eta gutxiagotan aukeratu izan zen kobazuloa bizi izateko. Harpeak, eta batez ere, atari zabaleko kanpamenduak nagusitu ziren. Oraindik, kanpamendu horiek sasibiltariak ziren, nahiz eta eraikuntzak egiteko lehengaietan beste ohitura batzuk hartu (buztina eta pezoa erabiltzen hasi ziren). Lehendabiziko aldiz, etxola hitzak zentzua dauka giza taldeetan egun ulertzen dugun modura. Euskal Herrian zeharreko banaketan, aztarnategi gehienak hegoaldeko lurraldeetan agertzen dira.

KLIMATOLOGIA: Egungoaren parekoa, agian hezeagoa *Optimum Climatico* aldirian zehar. Hau bukatzerakoan, egungo egoerara hurbiltzen hasi zen klima.

FAUNA ETA LANDAREDIA: Basoaren hedapenak aurrera jarraitu zuen, bereziki harizti mistoaren ereduarekin. Horretaz gain, paisaia egungoaren parekoa zen, gure artean ohikoak diren animalia eta landare-espezie basatiekin. Ekialde Hurbiletik landare eta animalia espezie etxekotuak sartu ziren (laboreak edo zituak landareen artean, eta ahuntz, ardi, behi eta txerriak abereetan). Txakurra, aurreko garaietatik dator (Euskal Herriari dagokionean, eta Erralla-n ikusten dugun bezala, Erdi Madeleine alditik gutxienez).

EKONOMIA: Ekoizpen-ekonomia sartu zen bete-betean, horrek dituen ondorio guztiekin. Dena den, ekonomia harraparia ez zegoen oraindik erabat baztertuta (aurrera egin zuen portzentaje txikian bada ere), baina elikagaien hornikuntzan erdia baino gutxiago zeterren iturri horretatik. Inguruaren antropizazioa, edo gizakiak eragindako eraldaketa ekologikoa nabarmena da hasiera-hasieratik, baina batez ere Kalkolitotik aurrera.

GARAPEN TEKNIKOA: Zeramika garatzen da teknologia berri bezala. Harria leundu ere egiten zen, batez ere aizkorak egiteko. Harrizko eta hezurrezko

(gutxiago) tresneria erabiltzen zen oraindik. Garapen handia gertatu zen soin-apainduran, eta batzuetan oso urrutitik ekartzen ziren lehengaiak (Mediterraneo itsasoko maskorrak, lignittoa, harri bitxiak, etab.). Erabilitako lehen metala urrea izan zen, baina ezin daiteke esan benetako metalgintzarik egiten zutenik, ez baitzen metala urtzen, eta urrea mailukatuta soilik lantzen baitzen.

PORTAERA SINBOLIKOAK: Aurreko horrez gain, beste bi alderdi ere nabarmendu behar dira: megalitoen eraikuntza batetik, trikuharriak adibidez, hileta-monumentu gisa eta antolakuntza kolektiboaren zeinu gisa; eta bestetik, talde-ehorzketak eta horiei loturiko erritu berriak.

AZTARNATEGI GARRANTZITSUENAK:



Herriko Barra (Zarautz, Gipuzkoa): 1989an, J. Mujikaren zuzendaritzapean, premiazko indusketa bat egin zen Neolito garaian hondartza izan zen tokitik gertuan. Herriko Barran aurkitu zen egun daukagun Euskal Herriko nekazaritzaren aztarnarik zaharrena (duela 6000 urtekoa); dena den, ehizara joateko kanpamendu nagusia ere bazen.

Kobaederra (Kortezubi, Bizkaia): Bizkaiko Neolitoaren azterketan azken urteotan egin den aurkikuntza berri garrantzitsua. Nekazaritzako eta abelazkuntzako jardueren aztarnak topatu dira koba honetan. J.E. Gonzalez, J.J. Ibañez eta L. Zapataren zuzendaritzapean indusi zen.

Peña Larga (Kripan, Araba): 1985 eta 1989 bitartean J. Fernandez Erasok indusitako harpe hau beste leku klasiko batetik, Los Husos delakotik, hurbil dago. Bertako maila interesgarriena Lehen Neolitoarena da, etxe-abereak eta era kardialean apaindutako zeramikak dituen.

Los Cascajos (Urantzia, Nafarroa): Azken urte hauetako aurkikuntza dugu hau, J. Sesmak eta J. Garciak topatutakoa. Neolito beteko bizilagunak ditugu Los Cascajoseko herrixkan, ekoizpen-ekonomiaren jardueretan zeharo sartuta.

Kalkolitoa



GIZAKIA



JANZKERA



ASENTAMENDUAK



KLIMATOLOGIA



FAUNA ETA
LANDAREDIA



EKONOMIA



GARAPEN
TEKNIKOA



PORTAERA
SINBOLIKOA

KRONOLOGIA: 4.500/ 3.800 B.P.

GIZAKIA: Gure modukoa, Homo sapiens sapiens edo Cro-Magnon gizakia.

JANZKERA: Denetariko landare-zuntzak (belarrak, lastoak, azala, hostoak), eta tartean, lehenengo ehunak (lihozkoak), larruak eta denetariko animalia zuntzak. Artilezko jantziak ere ikusi ziren hemendik aurrera, josita eta botoiekin. Lehengai horiekin denetariko oinetakoak egiten zituzten.

ASENTAMENDUAK: Lehenengo herrixkak agertu ziren, oraindik gotortu gabe, baina guztiz finkoak. Bertan 6/8 etxola egon zitezkeen, oraindik egitura handiegiak eraiki gabe, baina antolamenduarekin. Erreketatik gertu egoten ziren, zirkulua eratuz. Kokalekuak oso ongi ezagutzen ez ditugun arren, badirudi Euskal Herriko bazter guztietan sakabanatuta zeudela. Ehorzketakobazuloak eta azken trikuharriak, berriz, askoz hobeto ezagutzen ditugu. Horiek, ehorzteko ez ezik, bizitzeko ere erabiltzen ziren sarri. Garaiko etxeak egitura konplexuak hartzen hasi ziren, hormak gorpuzten egurrezko egiturekin (hurritzaren adarrak su gainean zuzenduta, adibidez).

KLIMATOLOGIA: Egungoaren parekoa.

FAUNA ETA LANDAREDIA: Egungoaren parekoa, landare eta animalia espezie etxekotuak (laboreak, ahuntzak, ardiak, behiak eta txerriak) eta basatiak barne. Lehorte-prozesuak gertatzen hasten dira Atlantiko aldia bukatzen denetik. Aldi honetatik aurrera, gizakiaren eragina oso nabarmena izan zen.

EKONOMIA: Ekoizpen-ekonomia Euskal Herri osoko talde guztietara hedatu zen, eta ondorioz, oso eragin gogorra izan zuen inguru fisikoan. Bai nolakotasunari begira, bai kopuruari begira, oso jarduera garrantzitsua zen, nahiz eta ingurugiro naturalaren erabilpena eta baliabide basatien ustiakuntza oraindik eman ziren. Hedapen honetan, badirudi goldearen asmakuntzak zeresan handia izan zuela.

GARAPEN TEKNIKOA: Zeramika, harriaren leunketa eta harrizko eta hezurrezko (gutxiago) tresneriak erabiltzen jarraitzen zuten. Zeramikan, ezkila-formako zeramika-estiloa da bereziki aipagarria. Neolitoko soin-apaindurarekiko joerak iraun egiten du, eta batzuetan oso urrutitik ekartzen ziren lehengaiak (Mediterraneo itsasoko maskorrak, anbarra, lignittoa, harri exotikoak, etab.). Benetako lehen metalgintzaz kobreaken erredukzio eta

AZTARNATEGI GARRANTZITSUENAK:



Urtao II (Oñati, Gipuzkoa): Orkatzategi mendiaren maldan dago A. Armendarizek indusitako ehorzketa-kobazulo hau. Bertan, kobrezko mihi-sastakai bi aurkitu ziren beste hainbat objekturen artean.

Ilso Betaio (Alen, Bizkaia): Euskal Herrian ezagutzen dugun atari zabaleko kanpamendu gutxi horietako bat dugu Ilso Betaio. Gorrotxategi eta Yarrituren ardurapean indusi zen 80ko hamarkadan, eta oso aberatsa suertatu zen.

Pico Ramos (Muskiz, Bizkaia): Kostaldetik gertu eta Barbadun ibaiaren gainean, Pico Ramos izeneko kobazuloan ehorzketa konplexua aurkitzen da, oso atu aberatsarekin. Duela urte gutxi indusi zen L. Zapataren zuzendaritzapean.

San Juan ante Portam Latinam (Biasteri, Araba): 1985ean aurkitu zen harpe azpiko ehorzketa-zulo hau. Bertan 400dik gora hildakoren gorpuak lurperatu ziren, beren atuekin. Leku honetan aurkitu den elementurik deigarriena gizakien arteko gatazka baten zantzuak dira: hezurren artean harrizko gezi-puntak aurkitu dira.

Longar (Biana, Nafarroa): J. Armendarizek eta S. Irigarayk indusi zuten hipogeo hau megalito-mota bitxia da Euskal Herrirako. San Juanen aurkitutakoen antzeko borroka-aztarnak topatu ziren hemen ere.

Brontze Aroa



KRONOLOGIA: 3.800- 2.800 B.P.

GIZAKIA: Gure modukoa, *Homo sapiens sapiens* edo Cro-Magnon gizakia.

JANZKERA: Denetariko landare-zuntzak (belarrak, lastoak, azala, hostoak), eta tartean ehunak (lihozkoak), larruak eta denetariko animalia zuntzak. Artilezko jantziak ere badaude, josita eta botoiekin, baita denetariko oinetakoak ere. Fibulak erabiltzen ziren jantziak lotzeko, erromatarren filmetan ikustera ohituta gaudenez.

ASENTAMENDUAK: Herrixkak handitu (hogei etxebizitza edo gehiago) eta gotortu egin ziren. Ibai-gainetan leku garaiak aukeratzen zituzten batik bat, asentamenduak egiteko. Joera hori Burdin Aroan sendotu zen. Dena den, kobazuloak ere maiz erabiltzen ziren oraindik. Euskal Herriko banaketa oso anitza zen, eta badirudi sendotu egin zela Euskal Herri lehorrarekiko zaletasuna, lurralde hezeetan gutxiago topatu izan direlako. Gehienbat, kobazuloetan agertutako asentamenduetan edo gero Burdin Aroan iraupena izan zuten hirixken beheko mailetan aurkitu dira aztarnategiak.

KLIMATOLOGIA: Egungoaren parekoa.

FAUNA ETA LANDAREDIA: Egungoaren parekoa: landare eta animalia espezie etxekotu (laboreak, ahuntzak, ardiak, behiak eta txerriak) eta basatiak barne hartuta. Horiei etxeko zaldia eta lekadunak batu zitzaizkien. Azterketa guztien arabera, gizakiaren presio antropikoaren ondoriozko paisaiaren eraldaketa oso sakona izan zen batez ere Arabako Errioxan eta Nafarroako Erriberan, aspalditik baitzeuden herrixkak han.

EKONOMIA: Ekoizpen-ekonomia zen nagusi, bai hedaduraz, bai intentsitatez. Ekonomia harrapariaren ekarpena (aparteko elikagaiak lortzeko) % 10 inguruan kokatu zen, eta hortxe iraun zuen Historiaurre osoan. Gurpilaren eta gurdiaren asmakuntzak laguntza handia izan ziren nekazaritza-lanetarako. Ongarrien erabilpenak (bai organikoak, bai karea erabiliz) hobetu egin zituen etekinak.

GARAPEN TEKNIKOA: Metalgintzan, brontzearen nahastura garatu zen. Gero eta tresna konplexuagoak prestatzen ziren, eta metalgintzako teknikak inportatzen hasi ziren beste eremuetan egiten zituzten objektuak egiteko. Aurreko garaietako tradizio teknikoek jarraipena izan zuten (tartean,

erredukzioa, mea eta metala bereizteko), nahiz eta gero eta konplexuagoak izan, eta zentzu horretan, zeramikak, harlanduzko tresnak eta suharriarekin egindako gezi-puntak aurkitu ditugu garaiko aztarnategietan. Ildo horretatik, brontzea agertzeak ez zuen kobrea baztertzea eragin. Baina aurreko aizkora soilen aurrean, une honetan kirtenari heltzeko nerbioak eta eraztunak garatu ziren, tresna-mota berriak lortzeko (eraztundun aizkorak ad.).

PORTAERA SINBOLIKOAK: Oraindik ere lurperatu egiten ziren gorpuak, bai ehorzketa-haitzuloetan, bai tumuluetan. Errituei buruz ez dakigu askoz gehiago. Azken Brontzean, Ebro arrotik ohitura berriak (eta seguruenik jendemultzoak) etorri ziren, sarritan indoeuroparrekin identifikatu izan direnak. Erretzea eta erraustea, hileta-erritu gisa, eta errausketa-ontzien zelaiak, aztarnategi-mota berri gisa, izugarri hedatu ziren. Labar-arteak berpiztu zen, irudi eskematiko eta abstraktuen bitartez.

AZTARNATEGI GARRANTZITSUENAK:



Monte Aguilar (Bardeak, Nafarroa): Bardeetan topatu zen herrixka hau, Euskal Herriko Erdi Brontze Arotik ezagutzen dugun gutxiatariko bat da. J. Sesmak indusi zuen 90eko hamarkadako lehenengo urteetan.

Los Husos (Bilar, Araba): J.M Apellaniz (1967-1971) eta J. Fernandez Erasok (2000tik aurrera) indusitako leku klasikoa. Apellanizek aztarnategi sinboliko edo eredugarri bezala sartu zuen Los Husos bere doktoretza-tesian.

La Hoya (Biasteri, Araba): Herrixka honen lehenengo mailetan Erdi eta Azken Brontze Aroko mailak aurkitu ziren. Burdin Aroko beste hainbat herrixkatan gertatzen den antzera, asentamenduan jarraipena ikusten da, eta ondoren, I. eta II. Burdin Aroko maila oso aberatsak ditugu.

Burdin Aroa



GIZAKIA



JANZKERA



ASENTAMENDUAK



KLIMATOLOGIA



FAUNA ETA
LANDAREDIA



EKONOMIA



GARAPEN
TEKNIKOA



PORTAERA
SINBOLIKOA

KRONOLOGIA: g.g.b. 2.800/erromanizazioa.

GIZAKIA: Gure modukoa, Homo sapiens sapiens edo Cro-Magnon gizakia.

JANZKERA: Denetariko landare-zuntzak (belarrak, lastoak, azala, hostoak), eta tartean ehunak (lihozkoak), larruak eta denetariko animalia zuntzak ere bai. Artilezko jantziak ere bazeuden, josita eta botoiekin. Lehengai horiekin denetariko oinetakoak egiten zituzten. Jantziak fibulekin (gehienak brontzezkoak) lotzen zituzten bai emakumeek bai gizonezkoek. Gizonek burdinazko armak (ezpatak, adibidez) erabiltzen zituzten soinean.

ASENTAMENDUAK: Herrixkak are gehiago handitu ziren, ehunetik gora etxebizitza izateraino, eta ia beti gotortuta egoten ziren. Batik bat ibai gainetako leku garaiak aukeratzen zituzten herrixkok kokatzeko. Euskal Herriko sakabanaketa oso desberdina zen (80 bat herrixka Araban, 50 Nafarroan, 40 Iparraldean, 15 Bizkaian eta 10en bat Gipuzkoan). Jada, kobazuloak oso gutxitan erabiltzen ziren bizileku legez. Herrixka guztietan benetako hirigintza-antolamendua sumatzen da.

KLIMATOLOGIA: Egungoaren parekoa, nahiko epela, eta lehorragoa Hegoaldean Iparraldean baino.

FAUNA ETA LANDAREDIA: Egungoaren parekoa, landare eta animalia espezie etxekotu (laboreak, ahuntzak, ardiak, behiak eta txerriak) eta basatiak barne. Etxe-abereen artean oiloa ere sartu zen, La Hoyako hirixkan ikusi ahal izan denez.

EKONOMIA: Ekoizpen-ekonomia zen nagusi, bai hedaduraz, bai intentsitatez. Ekoizpen-jarduerak guztiz modernoak ziren, nekazaritza-lanen mekanizazioa gertatu arte burutu izan ziren modukoak: lekadunak eta zitu edo laboreak txandakatu egiten ziren, ongarriak erabili, nekazaritzako zikloa osatu egiten zen (gari-jotzea eta haizeratzea) haziak pilatu aurretik. Talde historikoen eraginez, txanpona egiten eta erabiltzen hasten da.

GARAPEN TEKNIKOA: Lantzen oso zaila den burdingintza garatu zen era guztietako tresneriaren bidez. Honek ez du esan nahi aurreko garaietako aurrerapenak baztertu zirenik; alderantziz, Burdin Aroan denak pilatu ziren: harrizko, hezurrezko eta metalezko tresnak, zeramikagintza eta ehungintza. Gainera, zeramikari dagokionez, I. eta II. Burdin Aroen artean (gutxi gora

behera duela 2350 urte) tornua erabiltzen zela jakin izan da, zeltiberiartzat jotzen zen teknika berri hau onartu zela beraz.

PORTAERA SINBOLIKOAK: Talde indoeuroparrekin batera zabaldu zen errausketa hileta-erritu bezala. Hildakoen gorpuak erre egiten ziren, eta errautsak harrespiletan edo errautsontzietan sartu. Suposatzen da talde berriekin batera erlijio eta portaera berriak etorri zirela. Idazketa alfabetikoa esaterako, erromatarrekin batera (historian zehar gure artean izan dugun lehen taldea), hau da, Burdin Aroaren amaieran iritsi zen Euskal Herrira.

AZTARNATEGI GARRANTZITSUENAK:



La Hoya (Biasteri, Araba): Garai desberdinetan (30eko eta 50eko hamarkadetan eta 1973-1989 bitartean) A. Llanosen zuzendaritzapean indusitako herrixka. Egun Euskal Herrian dagoen Burdin Aroko herrixka paradigmaticoa, museo bihurtua. Beste inon baino hobeto ikusten da bertako zeltiberiar artea, edo I. eta II. Burdin Aroen arteko igarobidea.

Castillo de Henayo (Dulantzi, Araba): Arabako beste leku klasikoetako bat, Ekialdeko Lautadan, toki garrantzitsuan kokatuta dagoena. Muino batean lekututako esparru honetan oso garatuta ikusi ahal izan da ekoizpen-ekonomia.

Alto de la Cruz (Kortes, Nafarroa): Aragoirekiko mugan bertan dago J. Maluquer de Motesek eta, hori hil ostean, F. Graciak eta G. Munillak indusitako herrixka hau. Ebro arro osoan balio sinboliko handia dauka, eremu zabalean indusitako Penintsulako lehenengoetarikoa delako.

Gastiburu (Arratzu, Bizkaia): Beste herrixketatik hurbil dago Gastiburu deritzon lekua, santutegizat hartu izan dena. 90eko hamarkadan L. Valdesen ardurapean industen ari dira.

Intxur (Aldaba, Gipuzkoa): Alto de la Cruzekin gertatzen zen moduan, Intxurren ere indusketa-ekinaldi klasikoak ditugu –J.M. Barandiaranek burututakoak–, baina beste batzuk X. Peñalverrek bultzatuta egin ziren 1986 eta 1995 bitartean. Orain dela denbora gutxi arte, Gipuzkoan ezagutzen genuen Burdin Aroko herrixka bakarra da.

Glosategia

Ahuntz eta ardi-aziendak: Kanpotik (Ekialde Hurbiletik) iritsitako ahuntz eta ardi etxekotuek osatzen dute talde hau. Sarritan, hezurak bakarrik aurkitzen ditugunean (aztarnategi arkeologikoaren kasuan), euren arteko bereizketa nahiko zaila izaten da.

Anbarra: Gizakiak Lehen Goi Paleolitotik erabiltzen du anbarra apaintzeko. Neolitotik aurrera, bereziki Kalkolitoan, berpiztu ziren honen moduko lehengai exotikoen truke-sareak, zintzilikariak eta bestelako apaingaiak egiteko.

Antropizazioa: Gizakiaren eraginez ingurumenean gertatzen diren eraldaketak, batzuetan oso xumeak izanik (baso bat botatzea adibidez), garrantzizko ondorioak dituztenak inguruan.

Arrankazia: Arrantzan (eta seguruenik ehizarako ere bai) erabilitako adarrezko tresna, hortzak zituena, ilara bakar batean edo bikoitzean. Oso esanguratsuak izan ziren Madeleine aldiaren barruko aldiak bereizteko.

Arte higikorra: Kasu honetan, euskarria higikorra da. Honen ondorioz, adierazpen hauek geruza arkeologikoen barruan berreskuratzen dira, eta zuzenean datatu daitezke.

Aurpegi bikoia: Tresnak egiteko, aurpegi bietatik lantzen zen uharria. Helburua zen lanerako sorbatza izatea. Oso ohikoak izan ziren Behe Paleolitoan, bereziki Acheul aldian.

Azagaia: Adar edo hezurrez prestaturiko lantza-punta, oso esanguratsua izaten dena mailari dagokion kronologia ongi zehazteko.

B.P.: Ingelesez *before present*, edo gure aurretik euskaraz. Datazioak egiterakoan erabiltzen den sistema internazionala. Kristo aurreko data bihurtzeko, B.P. datari 1950 urte kendu behar zaizkio.

Bisontea: European ia desagertuta dagoen bobido handia (gaur egun, bisonte europarrak zoologiko batzuetan bakarrik ikus daitezke). Animalia heldu batzuek 600 kilo baino gehiago izaten zituzten, eta ondorioz, horien ehiza arriskutsua baina etekin handikoa izaten zen beti Historiaurrean.

Bizkar zanpatudun xafla: Harrizko tresna konposatuak egiteko lantzen zen xafla edo. Albo batean aho zorrotza uzten zen, eta bestea landu, ahoa kentzeko ukitu malkartsuen bidez. Xaflak bi egur-zatiren artean muntatzen ziren, edo bestela, adarrezko hagaxkatan sartuta.

Brontze Aroa: Lehen eta Erdi Brontzea apenas ezagutzen dira, leku gutxitan topatu izan direlako horiei buruzko datuak. Azken Brontzeaz, berriz, gehiago dakigu.

Burdin Aroa: Burdin Aroa aroen aldakuntzaren inguruan bukatu zen, erromatarrak iritsi zirenean alegia (K.a. II. mendetik, K.o. I. mendearen

hasierara). Toki batzuetan (Nafarroan, batez ere), Burdin Aroa Historiaurrearen barnean kokatu beharrean Protohistoria delakoan sartu izan da, Historiaurrearen eta benetako Historiaren artean txertatuta.

Cro-Magnon gizakia: Gure moduko gizaki-mota, Goi Paleolitoarekin batera mundu osoan nagusitu zena. Azken 40.000 edo 30.000 urteotan, munduan geratu den gizaki-espezie bakarra.

Egokitzapen ekologikoak: Arestian aipaturiko aldakuntza klimatikoaren ondorioz, faunan, landaredian eta paisaian eraldaketa sakonak gertatu ziren. Horren guztiaren aurrean, gizakiak egokitu egin behar izan zuen, behar zituen baliabide eta elikagaiak eskuratzeko.

Ekoizpen-ekonomia: Animalia zein landare basatien etxekotzea ematen denetik ekoizpen-ekonomiaz hitz egiten dugu. Orditik aurrera, gizakia ez zen baliatu inguruak ematen zituen baliabideez soilik, baizik eta bera baliabide (eta elikagai) berrien sorkuntzaz arduratu zen.

Epipaleolitoa: Bere barnean azpizatiketa bat onartzen da Euskal Herrirako: bertan Azil aldia eta Azil ondoko Epipaleolitoa (laminarra eta geometrikoa) elkarren segidan ematen dira. Batzuetan, azpialdi horien ondoren, Mesolitoaz hitz egiten da.

Eratzundun aizkora: Brontzez eginiko aizkora, seguruenik kirten batera lotzeko eratzun bat (edo bi) daramana. Aurreko harri leunezko aizkoren ondoan, metalezko aizkorek zailtasuna kendu zioten arbolak botatzeko lanari.

Erdiko sua: Lehendabizikoak sua gordetzeko hobi txikiak izan ziren. Denborarekin handitu egin ziren hobiak, harlauzaz estali eta, egitura bezala, nahiko konplexuak bilakatu ziren.

Errautzontzien zelaia: Azken Brontze Aroan hedatu zen errausketaren erritua hileta-praktika gisa. Hildakoen gorpuak erre, eta horien errautsak ontzietan sartzan ziren, hilerrietan lurperatzeko. Indoeuoparrekin hedatu zen ohitura honek, Erromatartze beranterara arte iraun zuen.

Erredukzioa: Mea meategitik atera ondoren, bertatik metala ateratzeko erredukzioa egin behar da behin edo gehiagotan. Labe handietan mea eta egur-ikatz sartzan dira txandaka. Sua eman, eta erredukzioaren eragin fisiko (beroa) eta kimikoaren ondorioz, meak metala askatzen du. Labearen ondoan, metal-tanta askatuak elkartu egiten dira metal-totxoa osatzeko.

Erromatarrak: Euskal Herrian sartu ziren lehen talde historikoak ditugu. Erromatar Inperioa Euskal Herrian sartzean, legeen, hizkuntzaren edo errituen aldetik kolonizatuta egon ginen ia 500 urtez.

Ezkila-formako zeramika: Kalkolito betetik aurrera hedatu den zeramika apaintzeko teknika, gai geometrikoak xingola horizontal eta paraleloetan sartzean zetzana. Apaingaiak txandakatu egiten ziren egitura zehatzak osatuz. Lehenengoz topatu ziren mota honetako zeramikak ezkila edo kanpai-formakoak zirelako eman zitzaizen izen hori.

Fibula: Jantzietan erabilitako metalezko tresna. Orratza darama eta tunika-erako jantziak ipini ostean lotzeko erabiltzen zen. Brontze Aroaz geroztik dago gure artean.

Geometrikoa: Harrizko tresna bat, morfologikoki geometrikoa dena (gehienak, triangeluak, trapezioak edo zirkuluaren segmentuak). Hausturak egiten dira xaflatxo baten alde bietara, nahi den erako lanabesa ateratzeko. Tresna handiago konposatuen zatiak direlakoan gaude.

Goi Paleolitoa: Kronologia absolutua sinplifikatua agertzen bada ere, erlatiboa askoz konplexuagoa da. Goi Paleolitoan hainbat kultura bereizten dira; garrantzitsuenak, elkarren segidan, Castelperron, Aurignac, Gravette, Solutre eta Madeleine aldiak dira.

Goldea: Europaren ekialdetik etorri zen asmakuntza teknikoa, makila zulatzailearen erabilpenaren ondoan egundoko abantailak ekarri zituen, besteak beste, lurzoruaren osagai kimikoak eta oxigeno-edukia hobeto berreskuratzea.

Gurdia: Gurpilaren eta gurdiaren asmakuntzak abantaila garrantzitsuak ekarri zituen Mundu Zaharreko biztanleriarentzat. Gurdia, nekazaritza-lanetarako oso lagungarria zen, baita arma gisa ere.

Haratusteljalea: Beste haragijale batzuek ehizatutako animalien okela jaten duen animalia. Hiena edo putreak dira gehien ezagutzen ditugun haratusteljaleak, nahiz eta gizakiak ere, hasiera batean, horrela lortzen zuen jateko okela, hau da, lehoi, hiena edo hartzek ehizatutakoa eskuratzen zuten.

Harizti mistoa: Epeltze-garai hezeetan maiz agertzen den baso hostogalkorraren mota bat. Bertan, haritzak garrantzi berezia zuen, lizarrarekin eta zumarrarekin batera.

Harpea: Harri edo haitz-azpian sortutako aterpe naturala. Nahiz eta txikia izan, Historiaurreko aro epeletan kobazuloak baino gehiagotan erabiltzen ziren bizigune moduan.

Harrakalagailua: Aurpegi biko tresna-mota berezia, mutur batean zeharkako ahoa izaten zuena (aizkoraren modura).

Harrespila: Edo mairubaratza (beste leku batean) megalito-mota bat da, Britainia aldean *cromlech* izenarekin ezagutzen dena, eta harrizko monolitoak bertikalki ezarriz zirkuluak egitean datzana. Hemengo harrespilak eta Britainiako cromlechak egitura berbera izan arren, kronologikoki gure artean askoz beranduago agertu ziren (Burdin Aroan eta aro historikoetan). Errausketan bildutako errautsak bertan hilobiratzen ziren, zirkuluaren erdian alegia.

Harri leunduzko aizkora: Leunketaren teknikaren bitartez (Neolitoan sortu zena, eta Aroari izena eman ziona: *Neo-lithos* edo harri berria) landutako aizkora, garaiko lanetan oso lagungarri izan zena. Hain zuzen, Holozenoaren hobekuntza klimatikoa zela medio hedaturiko basoa bota egin behar zen, lur berriak larreak eta baratzak jartzeko erabili behar

zituztelako. Gehienetan sumendi-harriak erabiltzen zituzten harri leunduzko tresnak egiteko, suharria baino egokiagoak zirelakoan. Harri-totxoa moztu ondoren, leundu egiten zen horren sorbatza.

Hegal eta kirtendun gezi-punta: Normalean suharriarekin lantzen ziren arkuetarako gezi-puntak. Solutre aldian modan zegoen ukitu launa erabiliz, gezi-punta hostokara oso txikiak prestatzen zituzten. Denborarekin, alde bietara hegalak eta oinaldean kirtena zutela egiten hasi ziren, ondorengo garaietan ezagutu ditugun metalezko gezi-punten antzera.

Hirigintza: Herrixkaren barruan antolamendua ikusten denean esan daiteke hirigintza dagoela. Kontzeptu horretan atal desberdinak sartzen ditugu: azpiegiturak, eraikin komunak, kaleak, etxebizitzaren arteko hormak, etab. Azken Brontze Arotik hitz egin daiteke hirigintzaz Euskal Herrian.

Holozenoa: Koaternarioa (Geologiaren azken aldia) Pleistozeno eta Holozeno bitartean azpisailkatzen da. Paleolito osoa Pleistozenoan zehar garatu zen izozte-aroekin. Azken izozte-aroa amaitu eta egungo klimara hurbildu ahala, Holozenoan gaude.

Hortza: Harrizko tresna bat, sorbatzean koskak zituena. Aho berean kamerrak lantzen ziren, tresnari zerra-itxura emateko. Zuraren lanketari lotzen zaizkio hortzak.

Idazketa: Idazketak bereizten ditu talde prehistorikoak eta historikoak. Arestian aipaturiko txanponetan agertzen diren testuak alde batera utzita, Euskal Herriko lehen idazketaren agerpena talde erromatartuekin etorri zen, K.a. II. mendetik aurrera alegia.

Igitaia: Euskal Herriko aztarnategien arabera, oraindik ez ziren metalezkoak egiten, harrizkoak baizik. Horztun xaflatxoak bi egurren artean sartzen ziren, ertz biribil eta ahurra lortu arte. Gero dena lotu eta itsatsi egiten zen erretxinaz.

Itsaski-bilketa: Itsas ertzeko baliabideen bilketa (bereziki, elikagaiak, moluskuak). Azken Madeleine alditik aurrera ekonomia areagotu egin zen praktika gisa, eta garrantzi berezia izan zuen Epipaleolito osoan eta Neolitoaren hasieran.

Kalkolitoa: Ohiko sailkapenaren barruan, ezkila-formako zeramikaren agerpenaren aurreko eta ondorengo faseak bereizten dira.

Kanpalekuak: Atari zabalean eraikitzen ziren etxola-multzoak. Erdian sua egoten zen. Urte batetik bestera esparru berdinetara itzuli arren, kanpalekuak ez ziren leku berberetan eraikitzen.

Karea: Kare-haitzari edo kareharriari sua emanaz karea askatzen da, eta oso egokia da inguruak garbitzeko. Ohiko bizimoduan, baserrietan adibidez, etxeak zuritzeko erabili izan da.

Karraskagailua: Puntaren antzeko tresna, baina gehiegi zorroztu gabe. Uste da larruaren prestakuntzan (garbitu eta fintzeko lanak) ezinbesteko tresna zela.

Labar-arte: Normalean kobazuloetan (baten batzuk harpeetan edo atari zabalean) margotu edo grabatzen ziren irudiak, mugi ezin zitezkeenak. Teknika, gaia eta kronologia aldetik oso adibide konplexuak ikusten dira munduan zehar.

Levallois teknika: Erdi Paleolitoan edo Mustier aldian harria lantzeko erabilitako teknika. Levallois teknikaren bidez printza bereziak eskuratzen ziren, aldeztu aurretik nahi ziren tamaina eta erakoak; adibidez, Levallois izeneko puntak egin zitezkeen. Hori lortzeko, suharrizko muina edo nukleoa arreta handiarekin lantzen zen, gero printzak ia zuzenean erabili ahal izateko.

Marruska: Ertz biribila duen harrizko tresna, gehien bat larrua lantzeko erabilia, analisi funtzionalen arabera.

Megalitoa: Harri handiekin eraikitako egitura erraldoia. Gehienak historiaurrekoak izaten dira, alegia Neolitotik aurrerakoak, eta hileta-eraikin moduan erabiltzen ziren talde-ehorzketak egiteko.

Metalgintza: Aurrerakuntza honi esker, tresnak egitean neurri eta morfologia aldetik zituen muga guztietatik askatu zen gizakia; hau da, lehengaiaren kopurua zen oztopo bakarra. Ondorioz, nahiko teknika konplexuak garatu eta hobetu ziren, meatik metalezko azken objektura bitarteko prozesua osatzeko.

Mustier aldia: Europan, Erdi Paleolitoan garatu zen kultura. Horrela, kronologia eta kultura kontzeptu paraleloak dira.

Nahastura: Metalgintza garatzerakoan, eta metal desberdinen ezaugarriak egiaztatzerakoan, gizakia horiek proportzio desberdinetan nahasten hasi zen, aukera gehiago aztertzeko. Nahastura edo aleazio horietariko arrakastatsuen brontzearena da, kobreaki %8 eta %12 bitarteko proportzioan eztaizua nahastean lortzen dena. Lortzen den metala aurreko biak baino gogorragoa da, eta errazago urtzen da, urtze-puntua (temperatura) nahiko baxuagoa baitu.

Neanderthal: Garai honetako gizakia. Gugandik oso hurbil zegoen fisikoki, nahiz eta nahiko sendagoa eta aurpegi desberdinekoa izan. Erdi Paleolitoaren amaieran desagertu zen bat-batean.

Neolitoa: Bere barnean Neolito zaharra (zeramika era kardialean inprimatua) eta Neolito betea edo garatua bereizten dugu.

Pirita: Burdina-oxidoa, mineralean era naturalean aurki daitekeena kareharrien artean edo askatuta buztinetan. Suharrak eta piritak elkar jotzean txinpartak ateratzen dituzte, eta horiek sua egiteko erabili daitezke.

Punta: Iritsi zaizkigunak harrizko lanabesak dira, seguruenik hezur edo zuraz ere egin ziren arren. Harrizko tresna bezala, printza luzetxo bana lantzen zen alde bietan, muturrean punta zorrotza utziz. Ehizarako erabiltzen zelakoan gaude.

Suharria: Kuartzozko harri-mota bat, Historiaurrean oso garrantzitsua izan zena. Hain zuzen, oso lagungarria izan zen sua egiteko. Baina harrizko lehengai bezala erabiltzen zen askotan, Goi Paleolitoan ia tresna guztiak suharri gainean egitera iritsi zirelarik.

Talde-ehorzketa: Ehorzketa-errituen artean talde-ehorzketak ditugu; horiek trikuharri nahiz hipogeoetan (lur azpian eraikitakoak, Bianako Longarrekoa adibidez), edo ehorzketa-kobazuloetan egiten ziren. Taldekide bat hil ostean, gorpua eremu horietan hobiratzen zen: hilotza azalean ixten zen, aldamenean atu apal bat utziz.

Tornuz eginiko zeramika: Gure Historiaurrearen zatirik handienean, eskuz egiten ziren zeramikak. Burdin Aroaren bigarren erdialdean (K.a. 400 urtearen inguruan), berriz, tornuaren erabilpena zabaldu zen ontzi erregular eta finagoak egin ahal izateko. Honela bereizten dira, Euskal Herrian, I. eta II. Burdin Aroak.

Trikuharria: Euskal Herrian zabalkunde handiena izan duen megalitoa. Ganbara bat egiten zuten, gutxienez bi harlauza bertikalen gainean beste bat horizontalki jarrita; gero, egitura hori tumulu batez estaltzen zen. Ganbara horiek oso konplexuak izatera iritsi zitezkeen, askotan sarbidea ere izateraino.

Tumulua: Megalito-era bat, askotan beste tankera batzuetan osagarri gisa agertzen zena bestelako egiturak estaltzeko. Hartz, lurrez edo nahastutako harri eta lurrez prestatzen zen muino edo tontortxoak. Bere barnean lurperatzeak egiten ziren.

Txanpona: Talde historikoen eraginez, Penintsulako iberiarrek eta zeltiberiarrek txanponak erabili eta egiteko ohitura hartu zuten. Batez ere, zilarrezko denarioak egiten zituzten (Euskal Herrian, badirudi Barscunes izeneko zeka Iruñealdean kokatuta zegoela).

Zeramika: Neolitoan asmatutako beste teknika bat, likidoak garraiatzeko eta elikagaiak su gainean prestatu eta gordetzeko urte-saso desberdinetan. Ura, buztina eta deskoipeztatzailleak (harrizkoak, hondarrak, hezurtxoak etab.) nahasiz ore bat prestatzen zuten, eta nahi zen era eta tamaina eman ondoren, labean egosten zuten gogortu arte.

Zituak: Edo laboreak, *Cerealia* familiako etxekotutako espezie berriak. Gure artean eta Neolitoan jasotakoetatik garia eta garagarra dira garrantzitsuenak; denak Ekialde Hurbiletik iritsi zitzaizkigun. Geroago beste batzuk etorri ziren, artoa edo arrosa esaterako. Lehenengo laborantza-teknikak oso xumeak ziren, baina baita oso makalak ere: makila zulatzaile batez eginiko zulotxoan hazia bota, eta laborearen buruxka agertu ostean zaindu egiten zen uztaroa heldu artean.

Zizela: Egun metalez egiten diren zulakaitz edo zizelen formakoa, muturrean diedro bat zuena. Diedro hori harriak edo hezurak grabatzeko erabiltzen zen, baita ebaki sakonak egiteko ere.

Gida didaktikoa

Historiaurrea Euskal Herrian berez 12 eta 16 urte bitarteko ikasleei zuzendutako ikasmateriala da, aldi berean beste adinetako erabiltzaileentzat ere interesgarria gerta daitekeena. Produktuaren xede nagusia gazteei Euskal Herriko historiaurreari buruzko ezagutza esanguratsua eskaintzea da. Eskaintzen den materialaren bidez, ikasleak gure aurretikoen bizimodura hurbiltzen dira, historiaurreko gizarteetan izan duen bilakaera azaltzen zaie eta. Ikasmaterialaren helburua irakaskuntzaren laguntzaile izateaz gain, historiaurrearen lehen sarrera eta orientabidea izatea da, hau da, ikaslearentzako erabat erabilgarria izango den tresna eskuratzea.

Garapenerako ildo nagusiak honako hauek lirateke:

- Euskal Herriko historiaurreari buruzko ezagutza esanguratsua eskaintzea ikasleei.
- Teknologia berriak eta ikasmateriala uztartzea, gazteei teknologia berriak barneratzen lagunduz.
- Ikasleak IKT-dun gaitasunetan trebatzea.

Helburu orokorrak

Historiaurrea Euskal Herrian ikasmaterialak Euskal Herriko historiaurreari buruzko ezagutza esanguratsua eskaintzea du helburu. Eskaintzen den materialaren bidez, ikasleak gure aurretikoen bizimodura hurbiltzen dira, historiaurreko gizarteetan izan duen bilakaera azaltzen zaie eta.

Ikasmaterialaren helburu nagusiak ondorengoak izango dira:

- Iraganeko errealitate sozialari buruz jakiteko interesa eta ikusmina eta gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa.
- Gizarte historikoen arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatzea.
- Giza taldeen kultura-ondarea den aldetik, gure ondare historiko eta artistikoa eta naturala balioetsi, errespetatu eta haiekin gozatzea, eta hura zaintzearen, defendatzearen eta jakinaraztearen aldeko jarrera izatea.

- Gizonezkoek eta emakumezkoek historian izan duten zeregina balioestea.

Curriculumaren erreferentziak OCDn

Historiaurrea Euskal Herrian osatzen duen ikasmateriala DBH 1. ikasmailako "Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia" ikasgaiko edukiekin lotura zuzena du. Maila horretan, gizarte historikoen bilakaera lantzen da, hastapenetatik Erdi Aro arte. Esparru horren barruan, gizartearen bilakaera ahalik eta nabarmenen erakusten duten alderdiak azpimarratzen dira, baita, denboraren ikuspegia abiapuntu hartuta, egungo gizarteak nola eratzen diren ikusarazten duten alderdi esanguratsuak ere. Mundua eremutat hartuta, eta, bereziki, Europa, gure herrialdeko historiaren ezaugarriak erantsi dira. 3. blokeak honako eduki hauek biltzen ditu: historiaurreko gizarteak, lehendabiziko zibilizazioak eta antzinaroa.

Hain zuzen ere, irakasgai hau osatzen duten hirugarren eduki multzoa, "Historiaurreko gizarteak, lehendabiziko zibilizazioak eta Antzinaroa" delakoarekin oso lotuta dago:

- Historia-iturriak: motak, materialak, ikonografikoak, idatziak, ahozkoak, kartografikoak, digitalak. Horien ekarpena ingurune fisikoa eta gaur egungo eta iraganeko bizimoduak ezagutzeko.
- Denbora historikoa: kronologia, aldaketa eta iraupena. Denbora historikoaren adierazpen grafikoa. Periodizazio konbentzionalaren erabilera (historiaren garai eta aldi kronologikoak) eta beste kultura batzuetan denbora neurtzeko dituzten moduen azterketa. Kausalitate aniztasuna: gertaera eta prozesu historikoen kausak eta ondorioak.
- Hominizazio-prozesua. Historiaurreko herrialdeen bizimoduak. Ehiztariak eta biltzaileak. (antolaketa soziala, ekonomia, sinesmenak, arte-adierazpenak...). Iraultza neolitikoak eragindako aldaketak. Egungo espainiar lurraldeko Historiaurreko alderdi esanguratsuak. Historiaurreko aztarnen kokapena Euskal Herrian.
- Euskal lurraldeetako lehendabiziko biztanleak. Euskal Herriko eta haren inguruko historiaurreko kulturetako adierazpen nagusiak.

Euskara: jatorria eta bilakaera. Beste hizkuntza indoeuropar boteretsuago batzuekiko harremana.

Historiaurrea Euskal Herrian ikasmaterialak, hala ere, zeharkako izaera eduki nahi du, lantzen dituen edukiak ikasleak beste gaietan eta bere eguneroko bizitzan erabiltzeko baliagarriak izan daitezkeelakoan.

Gaitasunei dagokienean, hauek lirateke ikasmaterialak garatzen lagunduko duena:

- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- Giza- eta arte-kulturarako gaitasuna.
- Ikasten ikasteko gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Materialaren erabilerarako testuinguru metodologikoa

Ikasmaterialaren xede nagusia irakasgaiaren laguntzaile zuzena izatea da, hau da, Historiaurrearen ezagutzak jaso ondoren guzti hau era praktiko batean garatzea ahalbideratuko duen erreminta eskuratzea. Honela, ikasmaterial honen bidez ikasleak aurrerago jasotako kontzeptu teorikoak era praktiko batean landuko ditu. Guzti honekin, irakasle eta ikaslearentzat erabat erabilgarria izango den tresna eskuratuko dugu.

Historiaurrea Euskal Herrian ikasmaterialaren oinarria interaktibitatea eta elkarreragiketa dugu, ikasleentzako erakargarria eta motibagarria izan dadin eduki eta ariketa ezberdinen arteko nabigazioa ahalbideratzen baitu.

Guzti honekin, ikasleak "Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia" ikasgaiarekiko duen interesa eta motibazio-maila areagotzea eskuratuko dugu, bere ezagutzak garatzeko aukera izango duelako era atsegin eta entretenigarrian eta beti ere kalitatezko edukiekin.

Barne-egitura eta edukiak garatzeko oinarriak

Ikasmaterial honen erabiltzaileak garai jakin batean murgiltzeko eta aztergai dugun gaiaren inguruko jakin-mina sortzeko moduko pizgarriak erabili behar direla uste dugu. Horrela, eskaintzen den materialaren bidez,

ikasleak gure aurretikoen bizimodura hurbiltzen dira, Historiaurreak Euskal Herrian izan zuen bilakaera azaltzen zaie eta. Bertan proposatzen diren eduki eta ariketek osatzen dute *Historiaurrea Euskal Herrian* materialaren ardatza. Testuetan adierazitako kontzeptuen eta jardueren artean bi noranzkoko planteamendua egiten da: jarduerak edo ariketak burutzeko kontzeptuzko edukiak behar dira eta, era berean, kontzeptuzko edukiok noraino ulertu diren ikusteko modu egokia eta berehalakoa dira jarduerok.

Historiaurrea Euskal Herrian ikasmateriala kronologikoki antolatutako zortzi ataletan egituratzen da eta atal bakoitza Euskal Herriko historiaurreko etapa bati dagokio: Behe Paleolitoa, Erdi Paleolitoa, Goi Paleolitoa, Epipaleolitoa, Neolitoa, Kalkolitoa, Brontze Aroa eta Burdin Aroa. Atal hauetako edukietara sartzeko bi modu ditu ikasleak: Kronologia ataletik edota garaiari dagokion ataletik bertatik.

Era berean, atal bakoitza bi mailatan ezberdintzen da. Batetik, alde teorikoa dago, eta bertan, garai bakoitzeko biztanleen bizimodua eta ingurunearen ezaugarriak azaltzen dira: gizakia, janzkera, asentamentuak, klimatologia, fauna eta landaredia, ekonomia, garapen teknikoak eta portaera sinbolokoari buruzko datuak eskaintzen dira.

Gainera, lehen zati horretan, gaur egun ezagutzen ditugun garai hartako aztarnategiei buruzko informazioa ere eskura dezakegu. Bestetik, alde praktikoa dago, eta bertan, garaiari dagokion giza-taldearen eguneroko bizitzako galderak azaltzen dira. Ariketa horien bidez lehen zatian jasotako ezagutzak sendotu eta hobeto ulertuko ditu ikasleak. Horrela, atal bakoitzak bere osotasunean edukiak bereganatu eta, ondoren, horiek gauzatzeko aukera eskaintzen du.

Horrez gainera, ikasmateriala garai guztietarako balio duen eta ikasleak une oro eskuragarri izango dituen kronologia eta glosategi batek osatzen du.

Garai guztiak gai berberen arabera (klimatologia, fauna eta landaredia, ekonomia...) azaltzen direnez, errazagoa da etapa bakoitzaren ezaugarri nagusiak ikustea, garaien arteko desberdintasunak aurkitzea eta bakoitzak nolako bilakaera izan duen zehaztea.

Horrela, adibidez,

- Demografiaren ikuspuntutik bilakaera nolakoa izan zen zehatz daiteke, garai bakoitzean asentamenduan zenbat gizaki zeuden

kontuan hartuta: urteek aurrera egin ahala, gero eta jendetsuagoak izan ziren giza taldeak.

- Klima-aldaketaren eta historiaurreko etapa bakoitzeko faunan, landaredian eta ekonomian izandako ondorioen artean zein lotura dagoen ikus daiteke.
- Materialen arabera erremintak eta tresnak egiteko erabili zituzten teknikak aldera daiteke, eta horrela egurraren, harriaren, zeramikaren eta metalaren erabileren bilakaera zehaztu ahal da.
- Era berean, janzkeraren, asentamenduen eta garai bakoitzeko garapen teknologikoaren artean dagoen erlazioa ikus daiteke. Izan ere, teknikak aurrera egin ahala bitartekoak ere sofistikatu egin ziren: josturak, botoiak, ondutako larrua, oinetakoak...

Garai ezberdinetan gai berberak zeharka aztertzeke modu honi esker, prozedurazko hainbat eduki orokor eta espezifiko lantzeko aukera sortuko da.

Honakoak dira prozedurazko eduki orokorrak:

- Gizartea osatzen duten elementuen identifikazioa.
- Etapa bakoitzaren ezaugarri diren faktoreen identifikazioa.
- Garai bereko alderdien arteko loturen analisia: garai bateko klimatologiaren eta giza asentamenduen arteko lotura; ekonomiaren, teknikaren eta janzkeraren artekoa, eta abar.
- Historiaurreko etapa bakoitzeko gizartearen arteko berdintasunen eta desberdintasunen azterketa.
- Desberdintasunen (aldaketak, berrikuntzak, aurrerapenak) eta berdintasunen (elementu berberak, aldaezinak) arabera hipotesia azaldu eta formulatzea.
- Jarduerak burutu eta helburuak lotzeko informazioa bilatu, lortu, aukeratu eta interpretatzea.

Ikasmaterial honetako eduki guztiak bi bertsiotan aurkezten dira: nabigagarria (HTML formatua) eta inprimaketarako prestatua (PDF formatua).

Kredituak

Jatorrizko gidioia: Alvaro Arrizabalaga Valbuena eta M^a José Iriarte Chiapusso

Diseinua: Euskomedia Fundazioa